

KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZARI BURUZKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea eta lege araubidea

Ordenantza honen xedea da Derioko Udalari dagozkion zergen eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarreraren kudeaketa, bilketa, zehapen eta ikuskapen prozedurak arautzea.

Zergen eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarreraren kudeaketa, bilketa, zehapena eta ikuskapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak (Toki Ogasunen Foru Arauan aurreikusitako berezitasunekin), zerga bakoitzari buruzko Ordenantza Fiskalek eta Udal Ordenantza honek arautuko ditu. Ordenantza honetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzen duten xedapen osagarriak beteko dira.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

1. Ordenantza hau Derio udalerrri osoan aplikatuko da, indarrean sartzen denetik berau indargabetu edo aldatu arte.

2. Udalerrriaren zuzenbide publikoko diru-sarrerak direla-eta udalerritik kanpo ikuskatze edo nahitaezko bilketako jarduketak egin behar izanez gero, Udal honek egin ditzake Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gainerako kasuetan, zeregin horiek ezarrita dauden edo ezar litezkeen lankidetzaren formularen arabera egingo dira.

3. artikulua.- Zerga administrazioa

1. Udal administrazioak kudeatu, bildu eta ikuskatuko ditu zergak, Foru Aldundiaren edo Autonomia Erkidegoko administrazioaren alde egin daitezkeen eskuordetzeetan eta herri administrazioekin, oro har, suerta daitezkeen lankidetzaren formulatan eragin gabe.

Era berean, udal administrazioak erabaki dezake xede horretarako udalerrria kide den elkarte erakundeek eman ditzaketan zerbitzuak erabiltzea.

2. Udal administrazioaren baitan, honela banatuko dira eskumenak:

a) Alkatetza:

Alkateak honako eginkizun hauek izango ditu zuzenbide publikoko diru-sarreraren kudeaketan:

i) Entitate laguntzaile gisa baimena ematea.

- ii) Informazioa eskatzea, finka edo lokaletan sartzeko baimena ematea, kautelazko neurriak hartzea.
Espezietan ordaintzeari baiezkoa ematea.
Likidazioak onestea eta ezeztatzea.
- iii) Berraztertze errekurtsoak ebaztea.
- iv) Bidegabeko ordainagiriak itzultzea ebaztea.
Onura fiskalak aitortzeko eskariak ebaztea.
- v) Bermearen onespina ebaztea.
Bermeak exekutatzea ebaztea.
Onura fiskalak aitortzea.
- vi) Geroratzeak edo zatikatzeak ebaztea.
- vii) Legez beste organo batzuei ez dagozkien gainerako eginkizunak gauzatzea.

Alkateak gainerako zinegotziei eskuorde diezazkieke egokitzat jotzen dituzten eginkizunak.

b) Diruzaintza:

Diruzaintzak honako eginkizun hauek izango ditu zuzenbide publikoko diru-sarreraren kudeaketan:

- i) Alderdi batek eskatuta konpentsazioa ebaztea.
- ii) Kreditu hutseginak eta kobraezinak aitortzea.
- iii) Premiamenduzko probidentzia ematea.
- iv) Bahiturazko probidentzia ematea.
- v) Bahitutako ondasunak gordetzeko tokia erabakitzea.
- vi) Bahitutako ondasunen gordailuzaina izatea.
- vii) Bahitutako ondasunen besterentzea ebaztea.
- viii) Kobrantza eraginkor egitea.
- ix) Geroratzeak edo zatikatzeak ebaztea.
- x) Premiamenduzko probidentzia ematea.
Ofizios konpentsatzeko erabakia hartzea.

3. Honako hau izango da ZFAOn eta berau garatzeko xedapenetan agertzen diren Foru Aldundiko organoen eta udal organoen arteko baliokidetasun organikoa:

ZFAOn azaltzen diren organoak	Toki mailako baliokideak
Foru Ogasuna	Tokiko Ogasuna
Ogasuna eta Finantzak Saila, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatua	Alkatea
Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren menpe dauden organoak eta karguak	Ekonomia, Ogasuna eta Ondarea Saileko zinegotzi delegatua
Diruzaina	Diruzaina
Foru Erakunde Autonomoak	Udal Erakunde Autonomoak
Foru Aldundia	Udala

II. ZERGA KUDEAKETA

4. artikulua.- Kontzeptua

Zerga kudeaketa administrazio eginkizunak gauzatzean datza, ikuskaritza eta bilketa eginkizunen barruan ez daudenak eta zergak aplikatzeko jarduketak egiteari begira.

Alkatearen eskumena da behar beste administrazio egintza ematea zergak kudeatzeko, ondore horretarako egin ditzakeen eskuordetzeetan eragin gabe.

5. artikulua.- Abiaraztea

Zergen kudeaketa honako kasu hauetan abiaraziko da:

a) Alde batek eskatuta, autolikidazio edo aitorten bat aurkeztuz edo zergapekoak eskaera aurkeztuz.

b) Ofizioz.

6. artikulua.- Informazioa emateko betebeharra

Pertsona natural edo juridiko orok, publikoa edo pribatua izan, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluko 3. atalean aipatutako erakundeek udal administrazioari eman egin behar dizkiote zerga mailan garrantzitsuak diren datu, txosten edo aurrekari guztiak, mota edozein dela ere, beste pertsona batzuekin dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozkoak.

7. artikulua.- Zerga aitortpena

1. Zerga aitortpentzat joko da, hala dagokionean, zergapeko egitatea osatzen duten egoerak edo elementuak daudela udal administrazioaren aurrean berez adierazi edo aitortzeko erabiltzen den dokumentu oro.

2. Dagokion aitortpena aurkezteak ez dakar zerga betebeharraren jatorria onartzea edo aitortzea.

3. Oro har, zerga araudiari jarraikiz, aitorten bat aurkeztuz gauzatu, eskatu edo uko egin behar zaien aukerak ezin izango dira gerora zuzendu, zuzenketa aitortpenetarako aldiak aurkeztuz ez bada. Zerga bakoitza arautzen duen araudiak zuzentzeko beste une edo aldi bat ezar dezake.

4. Udalak berrikusi eta egiaztatu ahal izango ditu zergapekoek aurkeztutako aitortpenak, eta kasuan kasu, dagokion likidazioa egingo du.

5. Ordenantza bakoitzean finkatutako epeen barruan aurkeztu behar da ezinbestez. Epez kanpo aurkeztea arau-hauste arintzat joko da, eta halakotzat zehatuko da.

8. artikulua.- Kotsultak

1. Subjektu pasiboek eta gainerako zergapekoek behar bezala dokumentatutako kotsultak egin diezazkieke udal administrazioari, kasuan kasuko zerga erregimen, sailkapen edo kalifikazioaren inguruan. Era berean, Foru Aldundiak arauz izendatzen dituen organismo edo erakundeek zerga kotsultak egin ahal izango dituzte, baldin eta kotsultek euren kide edo bazkideei oro har eragiten badie.

2. Idatzizko zerga kotsultak eskubideak gauzatzeko, aitorpenak edo autolikidazioak aurkezteko, edo beste zerga betebeharrak batzuk betetzeko ezarritako epea amaitu aurretik egingo dira.

3. Kotsultak Udalarari zuzendutako idatzi batean egingo dira, erantzuna jasotzeko xedez. Gutxienez, honako datu hauek agertuko dira, eta hala badagokio, arauz eskatu ahal izango dira datu gehiago:

a) Kotsultatzailearen identifikazioa.

b) Kasuaren aurrekariak eta inguruabarrak.

c) Kotsultaren edukia argi, zehatz eta ez nahasteko moduan adieraztea.

4. Udalak artxibatu ahal izango ditu aurreko ataletan finkatutako baldintzak betetzen ez dituzten kotsultak, bai eta administrazioak eskatuta zuzentzen ez direnak ere. Hori guztia interesdunari jakinaraziko zaio.

5. Udalak idatziz erantzun beharko du sei hileko epean, kotsulta aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan ez erantzuteak ez du ekarriko kotsultaren idatzian adierazitako irizpideak onartzea.

6. Zerga kotsulten erantzunak eragin loteslea izango dute, zergapekoarekiko harremanetan zergak aplikatzeaz arduratzen diren Udaleko organoentzat. Aurreko artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituzten zerga kotsulta idatzien erantzunak informazio arloko ondoreak besterik ez dute izango. Kasuan kasu aplikatu beharreko araudia edo jurisprudentzia aldatzen ez den bitartean, zergapekoari erantzunean adierazitako irizpideak aplikatuko zaizkio, baldin eta kotsultaren idatzian jasotako inguruabarrak, aurrekariak eta gainerako datuak aldatu ez badira.

7. Zergak aplikatzeaz arduratzen diren Udaleko organoek edozein zergapekori aplikatu beharko dizkiote zerga kotsulta idatzietan jasotako irizpideak, baldin eta egitateen zein inguruabarren eta kotsultaren erantzunean jasotzen direnen artean antzekotasunik badago, organo eskudun berberak erantzunerako aplikatu daitezkeen administrazio doktrina modu arrazoituan aldatzen ez badu behintzat.

8. Udalarentzat ondorio lotesleak izango dituzte 2. atalean aipatzen den epean egiten diren kotsulten erantzunak, baldin eta aurretik abiarazitako prozedura, errekurso edo erreklamazio baten xedearekin edo izapidetzearekin lotutako auziak jorratzen

badituzte.

9. Kontsultak aurkezteak eta horiei erantzuteak ez dituzte etengo zerga arauak zerga betebeharrak betetzeko ezarritako epeak.

10. Zergapekoak ezin izango du errekurtsorik jarri zerga kontsulten erantzunen aurka. Hala ere, errekurtsua jarri ahal izango du erantzunean adierazitako irizpideak aplikatzearen ondorioz ematen den/diren administrazio egintzaren/egintzen kontra.

11. Interesdunek eskatuta, Udalak kontsulta zehatzen testu osoa euren eskura jarriko du, eta ezabatu egingo ditu kontsultak eragiten dituen pertsonak identifikatzea ekar dezaketen datuen erreferentzia guztiak.

9. artikulua.- Administrazioaren eskubideak

1. Udal administrazioak aitorpenak, horiek zabaltzea eta horietan adierazitako aurrekarien justifikazioa eska ditzake, eta antzemandako akatsak zuzentzeko ere eska dezake, hori guztia beharrezkoa bada zerga likidatu eta egiaztatzeko.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako betebeharrak ez betetzea arau-hauste arintzat joko da, eta izaera horri jarraituta zehatuko da.

10. artikulua.- Salaketa publikoaren ekintza

Salaketa publikoaren ekintza administrazioari laguntzeko betebeharrak apartekoa da, eta Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorrean eta berau garatzen duten arauzko xedapenetan agindutakoarekin bat etorriko da.

11. artikulua.- Zerga likidazioa

Zerga likidazioa ebazpen egintza da, eta horren bidez, zenbatzeko behar beste eragiketa egiten dira, baita zerga zorraren edo, hala badagokio, zerga araudiarekin bat etorritik itzuli edo konpentsatu behar diren zenbatekoak zehaztu ere. Likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira.

12. artikulua

1. Honako hauek hartuko dira behin betikotzat:

a) Aurretik administrazio mailan zergapeko egitatea eta balorazioa egiaztatuta egiten direnak, tartean behin-behineko likidazioa egon edo ez.

b) Zerga bakoitza arautzen duen ordenantza fiskalean adierazitako epearen egiaztatu ez direnak, preskripzioan eragin gabe.

2. Gainerako kasuetan, likidazioek behin-behineko izaera izango dute, izan kontura eginikoak, osagarriak, bermezkoak, partzialak edo osoak, baita autolikidazioek ere.

13. artikulua

1. Udal administrazioak ez ditu zertan likidazioak egokitu subjektu pasiboek aitortpenetan adierazitako datuetara.

2. Aitorpenen emaitzaren aldean zerga oinarriak gora egiten badu, subjektu pasiboari jakinarazi beharko zaio, eta zehatz-mehatz adieraziko zaio zein egitatek eta zein elementu gehigarrik eragin duten.

14. artikulua.- Bateratzea

Udal administrazioak dokumentu bakar batean batera ditzake subjektu pasibo berberaren gaineko zergen likidazioa eta bilketa, baldin eta lehenak kontzeptu bakoitzaren oinarriak, tasak eta/edo kuotak bereiz islatzen baditu, eta horren guztiaren baturak ordainarazi beharreko kuota bateratua zehaztuko du.

15. artikulua.- Errolda edo matrikula

1. Erroldan edo matrikulan sartu ahal izango dira izaera dela-eta zergapeko egitateek jarraitutasuna duten kasuetako zergak.

2. Altak egingo dira subjektu pasiboaren aitortpenaren eraginez edo administrazioaren zein ofizioaren bidezko ikerketa ekintzaren eraginez. Hala, ondoreak izango ditu zergaren ordenantzak xedatuta ordaintzeko beharra sortzen denetik aurrera, preskripzioa izan ezik, eta hurrengo aldiko erroldan edo matrikulan sartuko dira behin betiko.

3. Subjektu pasiboek egingo dituzte bajak, eta egiaztatu ondoren, behin betiko kenduko dira erroldatik. Aurkeztu diren aldiaren hurrengotik aurrera izango ditu ondoreak, ordenantza bakoitzak finkatzen dituen salbuespenen kasuan izan ezik.

4. Zergapekoek udal administrazioari aditzera eman beharko diote hogeita hamar laneguneko epean erroldan alta edo baja emateak edo aldaketarik egiteak eragin dezakeen aldaketa oro, gertatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

5. Alkatetzak ekitaldi bakoitzean onetsiko ditu erroldak edo matrikulak, eta onetsi ondoren jendaurrean jarriko dira hamabost laneguneko epean, zilegizko interesek azter ditzaten eta erreklamazioak jar ditzaten.

6. Erroldak edo matrikulak jendaurrean jartzeak interesdunen egintza bakoitzerako agertzen diren kuoten likidazioen jakinarazpen ondoreak izango ditu, interesdunek hurrengo hilabetean horien aurkako erreklamazioa jartzeko aukeran eragin gabe, dagokion errolda edo matrikula jendaurrean jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

7. Iragarkian zehazten den tokian jarriko da jendaurrean, eta udaletxeko iragarki taulak jartzeko aginduko da.

16. artikulua.- Zerga likidazioak jakinaraztea

Zerga likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkie, eta honako hauen berri emango da:

a) Zergapekoa.

b) Zorraren zenbatzekoa zehazten duten elementuak.

c) Horien arrazoia, zergapekoak emandako datuekin bat ez datozenean; egitateak eta zuzenbide oinarriak azalduko dira.

d) Aurkaratzeko erabil daitezkeen bitartekoak, baita zein epetan eta zein organismoren aurrean jartzekoak diren ere.

e) Zerga zorra ordaindu behar den tokia, epea eta era.

f) Behin-behineko edo behin betiko izaera.

17. artikulua

1. Behin betiko likidazioek behin-behinekoak zuzentzen badituzte, administrazio egintza baten bidez erabaki beharko dira eta interesdunari jakinarazi.

2. Aldizka ordainagirien bidez kobratzen diren zergetan, behin erregistro, errolda edo matrikula egokian alta emateari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak taldeka jakinarazi ahal izango dira ediktuen bidez, eta ediktuetan horren berri eman behar da.

3. Aitorpenen emaitzaren aldean zerga oinarriak gora egiten badu, subjektu pasiboari jakinarazi beharko zaio, eta zehatz-mehatz adieraziko zaio zein egitatek eta zein elementu gehigarrik eragin duten. Ez da jakinarazi beharko aldaketa foru arauak baimendutako izaera orokorreko errealizazioek eragin badute, edo zerga osatzen duten gainerako elementuetan izaera orokorreko aldaketak gertatu badira, ordenantza fiskaletan jasota daudenak.

18. artikulua.- Jakinarazpen akastunak

Jakinarazpen akastunek ondoreak izango dituzte subjektu pasiboak bere burua jakinarazitzat jo , dagokion errekurtsioa jarri edo zerga zorraren zenbatekoa sartzen duenetik aurrera.

19. artikulua.- Salbuespenak eta zerga onurak

1. Udalak, bere ahalmenak erabilita eta foru arauen esparruan, zerga onurak eman ahal izango ditu bere zergen arloan, eta dagokion aurrekontuaren kargura hartuko ditu bere gain.

2. Hala dagokionean, zerga onurak Alkatetzaren dekretu baten bidez emango dira, zerga bakoitzaren ordenantza fiskalak xedatzen duenari jarraikiz.

3. Zerga bakoitzaren araudian ezarritakoan eragin gabe, zerga onura aldeak eskatuta eman behar denean, honako kasu hauetan aurkeztuko da eskaera:

a) Erroldaren edo matrikularen bitartez kudeatzen diren aldiari behingo zergak direnean, dagokion ordenantzak alta edo aldaketarako aitorpenak aurkezteko finkatzen duen epean.

Eman ostean, zerga onura hurrengo likidazioetan aplikatuko da, berau ematea ekarri zuten egitate edo zuzenbideko inguruabarrak aldatzen ez badira.

b) Autolikidazio erregimena ezarrita duten zergak direnean, kasuan kasuko autolikidazioa edo aitorpen-likidazioa aurkezteko epean.

c) Gainerako kasuetan, dena delako zerga aitorpena aurkezteko epeetan edo zerga betebeharra sortzea dakarren baimenaren eskaera aurkezteko epean, kasuan kasu.

4. Onuraren eskaera aurreko atalean adierazitako epeetan aurkezten bada, aitorpenak ondoreak izango ditu zerga betebeharra sortzen denetik aurrera, eskaera egiten den zergaldiari dagokiona. Hala izan ezean, ez da onuraren gozamenik izango eskaera aurkezten den aurretik sortutako kuotetan.

5. Subjektu pasiboari dagokio frogatzea zerga bakoitzaren araudiak zerga onurez gozatzeko ezarritako baldintzak betetzen dituela.

6. Zergapeko egitate berberaren gainean bi hobari edo gehiago ematen badira, lehenbizikoz eta hurrengo aldietan aplikatzearen ondoriozko kuota erabiliko da bigarrena eta hurrengoak kalkulatzeko.

III. IKUSKATZEA

20. artikulua

Ikuskatzeari dagokionez, Udal honek BLHko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrari jarraituko dio, baita berau garatzen duten araubideei nahiz berau osatzen duten gainerako xedapenei ere.

Udal administrazioak aurreko paragrafoan aipatutako egiaztatze eta ikertze jarduketak egingo ditu bere langileen bidez edota beste administrazio batzuen edo udalerrria kide den elkartze erakundeen zerbitzuak erabilita, ordenantza honen 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

IV. BILKETA

21. artikulua

Udal administrazioak zerga bilketatik sortzen diren kredituak bilduko ditu bere langileen bidez edota beste administrazio batzuen edo udalerria kide den elkartzeko erakundeen zerbitzuak erabilita, ordenantza honen 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

22. artikulua

Titulu honetan xedatutakoa honako kasu hauetan aplikatu daitezke: zergak kobratzea, kontribuzio bereziak, tasak, prezio publikoak, Korporazioaren aurrekontuan diru-sarrera gisa agertzen diren ordainarazpen parafiskalak, eta udalerriak zuzenbide publikoko diru-sarrera gisa jaso behar dituen gainerako zenbatekoen ordainarazpenak.

Orobat, titulu hau aplikatuko zaio pertsona fisiko edo juridikoen egite edo ez egiteak direla-eta Udalak bere gain hartu behar dituen kostuen kobrantzari, baldin eta bere eskumenen esparruan ez badago. Horien adibide dira partikularren kargura Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren iragarkiak, ibilgailuak garabi zerbitzuaren bidez kentzea, udal lokalen ezohiko garbiketak, eta antzeko beste batzuk.

23. artikulua.- Ordaintzeko betebeharra

Subjektu pasiboak, eta hala badagokio, zerga zorraren erantzuleek zerga ordaindu egin beharko dute zerga bakoitzaren ordenantzarekin bat etorritik, likidazioa arauz jakinarazitakoan.

24. artikulua.- Ordaintzeko epeak

Honako epe hauetan bil daitezke zergak:

- a) Borondatezko epea.
- b) Betebeharren epean.

25. artikulua.- Borondatez ordaintzeko epea

Zerga zorraren zenbatekoa borondatez sartzeko epea honako une hauetatik aurrera zenbatzen hasiko da:

- a) Subjektu pasiboari likidazioa zuzenean jakinarazten zaionetik aurrera, banaka jakinarazten bada; edo zergapekoari aurrez aurre ezin jakinarazi bazaio, likidazioa Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialen argitaratzen denetik aurrera.
- b) Bilketa aldia zabaltzen denean, aldian behin kobratzen diren zergak badira eta horien likidazioak taldeka jakinarazten badira.
- c) Autolikidazioen kasuan, sortzapenetik aurrera.

26. artikulua

1. Ordaintzeko betebeharra dutenek borondatezko aldian ordainduko dituzte zorrak, honako epe hauetan:

a) Aldian behingo kobrantzen eta taldekako jakinarazpenen likidazioen ondoriozkoak, errolda onestean ezartzen den kobratze epean.

b) Administrazioak egindako likidazioak eta honako eskabide hauek ukatzearen ondorioz eska litezkeenak, hilabeteko epean jakinarazpenaren datatik aurrera: ordainketa geroratzea edo zatikatzea, alde batek eskatuta konpentsazioa ematea, zorra ordaintzeko ondasunak edo eskubideak ematea edo diru bilketako prozedura etetea.

c) Autolikidazioen ondoriozkoak, ordenantza arautzailean finkatzen diren epeetan.

2. Borondatezko epeak igarotakoan zor osoa ordaindu ez bada, betearazpen epea abiaraziko da ordaintzeko dagoen zergagatik. Betearazpen epea abiarazteak honako hauek sortzea ekarriko du:

a) Betearazpen epeko errekareruak; eta

b) Berandutza interesak, premiamenduzko probidentzia ematen denetik hurrengo atalean ezarritako epea amaitu arte igarotzen den aldiari dagozkionak izan ezik.

3. Exekuzio aldia abiarazi eta premiamenduzko probidentzia jakinarazitakoan, zerga zorra hilabeteko ezohiko epean ordaindu beharko da, jakinarazpenetik aurrera zenbatzen hasita.

4. Epe hori igarotakoan zor osoaren zenbatekoa sartu ez bada edo ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskatu ez bada, exekuzioa egingo da zordunaren ondarearen aurka, ordaintzeko dagoen zorreratik.

27. artikulua.- Zorrak ordaintzea

1. Zorrak eskudirutan ordaindu beharko dira, edo efektu tinbredunak erabiliz, zerga bakoitzaren ordenantzak xedatzen duenaren arabera. Berariazko xedapenik ez bada, ordainketa eskudirutan egin beharko da.

2. Eskudirutan egingo den ordainketa honela egin ahal izango da:

a) Legezko erabilerako dirua.

b) Txeke zeharkatua eta izenduna Udalaren alde, bankuko edo aurrezki kutxako kontu korrontera jaulkita. Txekea jaulkitzen zaion erakundeak behar bezala adostu edo ziurtagiria emango du, eta epemuga data, gutxienez, hiru laneguneko izango da ordaintzeko egunetik aurrera. Halaber, jaulkitzailearen izena edo izen soziala adieraziko da.

c) Banku edo aurrezki kutxako transferentzia.

d) Kreditu txartela.

e) Udalak baimentzen duen beste edozein bitarteko.

3. Udal administrazioak egingo du zuzenean bilketa, edota erakunde laguntzaileen edo zergak biltzen dituztenen bidez.

28. artikulua.- Helbideratzeak

Zergak ordain daitezke banku establezimenduetan edo aurrezki kutxetan helbideratuta, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Udal administrazioari eskatuko zaio.

b) Ordainketen helbideratzeak baliozkoak izango dira epe mugagabeen. Zergapekoek helbideratzeak deuseztatu edo beste establezimendu batera aldatu ahal izango dituzte edozein unetan, udal administrazioari horren berri emanez ezarritako epean.

29. artikulua.- Ordainketa justifikatzen duten agiriak

1. Interesdunak eskatuta, udal administrazioak ordainketa justifikatzen duen agiria emango dio. Honako hauek izango dira eskudirutan eginiko ordainketak justifikatzeko agiriak:

a) Ordainagiriak.

b) Ordainketa gutunak.

c) Baimendutako bankuek eta aurrezki kutxek behar bezala bideratutako justifikatze agiriak.

d) Zorpekoen ziurtagiriek ondoriozko diru-sarrereren behin-behineko frogagiri ofizialak.

e) Efektu tinbredunak.

f) Behin-behineko ordainagiri, ordainketa gutun eta frogagirien ziurtagiriak.

g) Udalak ordainketa justifikatzeko berariaz ematen duen beste edozein agiri.

2. Ordainketak justifikatzeko agiriekin honakoen berri emango dute, gutxienez:

a) Zordunaren izen-abizenak, izen soziala edo izendapena.

b) Helbidea.

c) Zerga kontzeptua eta dagokion aldia.

d) Zenbatekoa.

e) Kobratzeko eguna.

f) Ematen duen organoa.

30. artikulua.- Premiamenduzko prozedura

1. Premiamenduzko prozedura abiaraziko da zordunari jakinarazitako probidentziaren bidez; bertan, ordaintzeko zorra identifikatuko da, eta eskatuko zaio ordainketa egin dezala dagozkion errekargu eta interesekin.

2. Zordunak 26.3 artikulua ezartzen duen epean ordaintzen ez badu, ondasunak bahituko zaizkio, eta horixe ohartaraziko zaio premiamenduzko probidentzian.

3. Probidentzia organo eskudunak emango du diru-sarrera ez dela egin egiaztatutakoan, eta probidentzia titulu nahikoa izango da premiamenduzko prozedura abiarazteko. Orobat, ordaintzeko betebeharra dutenen ondasunen eta eskubideen aurka jotzeko epai judizialak bezainbesteko indar exekutiboa du.

4. Zordunak premiamenduzko prozedurako kostuak ordaindu beharko ditu, eta hala badagokio, hartutako kautelazko neurrienak ere bai.

31. artikulua.- Premiamenduzko probidentzia aurkaratzeko arrazoiak

1. Honako kasu hauetan baino ezingo da premiamenduzko probidentzia aurkaratu:

a) Zor osoa iraungitzea edo zerga administrazioak ordainketa exijitzeko ahalmena gauzatzeko aukera preskribatzea.

b) Borondatezko epean geroratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskaera, eta bilketa prozedura eteteko beste arrazoi batzuk.

c) Likidazioa ez jakinarazi izana.

d) Likidazioa ezeztatzea.

e) Akatsik edo ez esaterik premiamenduzko probidentzian, zorduna edo premiamendupeko zorra identifikatzea eragozten dutenak.

2. Premiamenduzko probidentzia jakinarazi ez izana premiamenduzko prozeduran gertatzen diren egintzak aurkaratzeko arrazoi izango da.

32. artikulua.- Premiamenduzko prozedura etetea

1. Premiamenduzko prozedura eten egingo da errekurtsu eta erreklamazio ekonomiko eta administratiboak arautzen dituzten xedapenetan aurreikusitako eran eta

baldintzekin nahiz zerga araudian aurreikusitako gainerakoekin.

2. Bilketa organoek automatikoki etengo dute premiamenduzko prozedura, bermerik eman beharrik gabe, interesdunak frogatzen badu bere kaltetan oker material, aritmetiko edo egitatezkoa gertatu dela zorra zehaztean. Orobat, frogatu behar luke zorraren zenbatekoa sartu duela edota zorra barkatu, konpentsatu, geroratu edo eten dela, edota zerga administrazioak ordainketa exijitzeko duen ahalmena gauzatzeko aukera preskribatu dela.

3. Hirugarren batek bahitura kentzea nahi badu uste duelako enbargatutako ondasun edo eskubideen jabaria edo titulartasuna berea dela, edo uste duelako kreditua berari itzultzeko eskubidea duela eta lehentasuna duela udal ogasunaren aurrean, hirugarrenentzaren erreklamazioa jarriko du organo eskudunaren aurrean.

4. Jabari hirugarrenentzaren aurkezten bada, premiamenduzko prozedura etengo da tartean diren ondasun eta eskubideei dagokienez, ziurtatzeko behar beste neurri hartu ostean.

5. Hirugarrenentzaren eskubide hobekoa bada, prozedurak bere bidea jarraituko du ondasunak gauzatu arte, eta lortutako produktua gordailutzan kontsignatuko da, hirugarrenentzaren ebazpenaren zain.

6. Nolanahi ere, hirugarrenentzaren erreklamazioak izapidetzeko prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari.

33. artikulua.- Geroratzea eta zatikatzea

1.- 33. Artikulua aldatzen da:

1.- Zerga zorra likidatzen denean. Udal Administrazioak, diskresionaltasunez, ordainketa zatikatu edo geroratu egin ahal izango du, beti zergapekoak horrela eskatu badu bai ordaintzeko epe barruan bai epe exekutiboan.

2.- "Ordainketa-plana" hitza erabiliko da ordaintzeko gerorapena eta ordaintzeko zatikapena batera izendatzeko. Berandutza interesak ordainduko dira ordainketa-planaren denbora-tarte horretan

3.- Ordainketa-plana emateko irizpide orokorrak honakoak dira:

- Orokorrean, ez dira gerorapenik ez zatikapenik emango baldin eta zorraren tronkoa 150€ baino gutxiagoa bada.
- Zatikien zenbateko txikiena 30 €-koa izango da
- Salbuespen gisa, ordainketa-plana emango da zorraren zenbatekoa edo zatikapenaren zenbatekoa ez direnean aipatutakoak.
- Ordainketa-plana emateko eskatzaileak, geroratu beharreko zorra edo zatikatu beharreko zorra helbideratu beharko du.
- Epeen amaiera eguna, oro har, haiei dagokien hilaren 10a edo 25a izan beharko da, edo hurrengo laneguna.

Ordainketa-planaren eskaera aurkeztean aurrekoak ordainduta eduki behar dira, baldin eta hori behin eta berriz aurkeztu eta ezeztatu badute hartutako konpromisoak ez betetzeagatik.

4.- Gerorapena edo zatikapena emateko organo eskudunak dira:

- Diruzaina, geroratu beharreko zenbatekoak 1.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean.

- Alkatea, 1.000 euroko gorakoa denean.

5.- Geroratze- edo zatikatze- eskariak ondorengo datuak edukiko ditu:

Izena eta abizenak, izen soziala edo deitura, identifikazio fiskaleko zenbakia, eskatzailearen helbide fiskala, eta edukiz gero ordezkariarena, telefonoa eta, hala denena, posta elektronikoa.

Geroratu edo zatikatzeko eskatzen den zorra.

Eskatzen diren geroratze- edo zatikatze-epeak eta baldintzak,

Eskaeraren zergatiak.

Eskainiko den bermea, kasua badagokio.

Eskainiko den bankuan helbideratzeko agindua, kontu zenbakia adieraziz (20 digitu)

Eskaera aurkeztu den lekua, data eta eskatzailearen sinadura

6.- Udalak eskaera bakoitza aztertu ondoren, geroratzeko edo zatikatzeko emango duen epea ez da luzatuko.

Nola nahi ere, honako hauek hartuko dira irizpide orokortzat:

i. 150 eta 3.000 euroren artean.....	6 hilabete
ii. 3001 eta 12.000 euroren artean.....	12 hilabete
iii. 12.001 eta 24.000 euroren artean.....	18 hilabete
iv. 24.001 eurotik gora.....	24 hilabete

7.- Bermeak.

Orokorrean ez zaio zordunari bermerik eskatuko ordainketa geroratu edo zatikatzeko, baldin eta horietatik 10.000 euro badaude ordaintzeke. Gehienez 20.000 eurokoa izango da, ordainketa-epe luzaezinak hogeita hamasei hilabeteko epea gainditzen ez duenean.

Aipatutako zenbatekoak edo epeak gainditzen dituzten zorrak direnean berme bat jarriko da, obligazioa betetzen dela bermatuz.

Bermeak aseguratuko ditu printzipalaren zenbatekoa, berandutza interes guztiak, gerorapen/zatikapenaren interesak eta borondatezko epean sortutako kontzeptu guztien batuketaren %20 gehiago.

Berme gisa onartuko da kreditu-erakundearen abal solidarioa edo zerga arauak onartutako edozein.

Ezohiko eta kasu oso kualifikatuetan, alde baten eskariz, Alkateak bermea eratzetik salbuetsi ahal izango du, eskatzaileak hori eratzeko ezintasuna alegatu eta frogatzen duenean. Eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da:

Pertsona fisikoen kasuan:

- Ondasun nahikoa ez izatearen adierazpena.
- Nomina edo erakunde ordaintzaileak behar bezala egiaztatutako ziurtagiria.

Pertsona juridikoen kasuan:

- Ondasun nahikoa ez edukitzearen adierazpena.
- Balantzea eta azken hiru urtealdietako kontuak eta, edukiz gero, ikuskaritza-txostena.
- Edukiz gero, bideragarritasun txostena eta ekonomi ikuspegitik garrantzitsua izan daitekeen beste edozein informazio.

8.- Gerorapen edo zatikapenetan ezarritako epea betetzean zorra ordaindu ez bada: borondatezko aldian aurkeztu ez bada eskabidea aldi exekutiboari emango zaio hasiera, eta eskabidea aldi exekutiboan aurkeztu bada ordaintzeko zorraren premiamendu-prozedurari jarraipena emango zaio.

9.- Zatikatzeko aukera eman denean, ezarritako epea betetzean zorra ordaindu ez bada, epeak agortutzat joko dira, eta aldi exekutiboari emango zaio hasiera baldin eta eskabidea borondatezko aldian aurkeztu bada, edo ordaintzeko zorraren premiamendu-prozedurari jarraipena emango zaio baldin eta eskabide aldi exekutiboan aurkeztu bada

34. artikulua.- Kobratzeko lehentasuna

1. Udal administrazioak lehentasuna izango du epemuga igaro eta kitatu ez diren zerga kredituak kobratzeko, horretarako Erregistroan Udalaren eskubidea jasota dagoen data baino lehenago bertan behar bezala inskribatuta ez dagoen domeinu, bahi, hipoteka edo bestelako ondasunekiko arielen hartzekodunekin batera doanean.

2. Erregistro Publiko batean izena eman daitezkeen ondasunak edo eskubideak edota horien egiazko zein ustezko produktu zuzenak aldian behin zamatzen dituzten zergen kasuan, Derioko Udalak lehentasuna izango du beste edozein hartzekodun edo eskuratzailearen aldean sortutako zor ez ordainduak kobratzeko, ordaintzea exijitzen den urte naturalekoak eta aurreko urtekoak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondoretarako, kobratzeko administrazio ekintza gauzatu dela ulertuko da bilketa prozedura borondatezko aldian abiarazten denean.

35. artikulua.- Zorren oinordetza

1. Pertsona fisiko, sozietate eta erakunde juridikoen ustiapenetik eta jarduera ekonomikoetatik sortutako zerga betebeharrak eta zehapenak solidarioki exijitu ahal izango zaizkie edozein kontzepturengatik horien oinordeko direnei dena delako titulartasunean edo jardunean.

2. Titulartasuna eskuratu nahi duenak erantzukizun solidarioa mugatu ahal izango du, aurretik egungo titularra ados agertzen bada. Hala, administrazioari eskatu beharko dio aurreko atalean aipatutako ustiapenetik eta jardueretatik sortutako zerga zor, zehapen eta erantzukizunen ziurtagiri zehatza. Ziurtagiriak eduki negatiboa jasotzen badu edo hiru hileko epean helarazten ez bada, artikulua honetan ezarritako erantzukizunetik salbuetsiko da.

35. artikulua.- Kreditu kobraezinak

1. Zergapeko guztien kaudimen gabezia frogatua dela-eta dagozkion bilketa prozeduretan kobratu ezin izan diren zerga zorrak kreditu kobraezintzat joko dira, preskripzio epearen barruan berriz gaitzen ez badira.

Zerga zorrak iraungiko dira preskripzio epea amaitutakoan berriz gaitu ez badira.

2. Kreditu kobraezintzat jotzea agirien bidez justifikatuko da hurrengo ataletan zehaztutako eran, eta Alkatetzaren ebazpen baten bidez onetsiko da, udal Kontu-hartzailetzak proposatuta.

3. Kredituak kobraezintzat jotzeko jarduketak biltzaileak emango duen probidentziaren bidez abiaraziko dira, premiamenduzko bidea emaitzarik gabe agortutakoan. Hartara, hala badagokio, bildutako zenbatekoak jasoko dira, baita hasiera batean kobraezintzat jo beharko direnak, aurretik justifikatuta.

4. Zorduna non dagoen ez jakiteagatik kobratu ezin bada, zordunaren egoitza eza egiaztatzen duen txosten estatistikoa eskatuko da, eta adieraziko da, batetik, zein ikerketa egin diren egungo egoitzaren berri izateko, eta bestetik, udalerrian edozein motatako ondasunik baduen.

5. Kaudimen gabezia gertatzen denean, Bilketa Exekutiboak egiaztatu beharko du enbargatzen saiatu dela baina emaitza negatiboa izan dela. Orobat, ez enbargatzeko arrazoiak zehaztuko dira.

6. Arestian adierazitako izapideak egindakoan, espedientea zergak kudeatzen dituzten bulegoetara eramango da, kobraezin gisa proposatutako kredituak zehazte aldera. Hala, bulegoetan aztertuko da aurrekari berririk ba ote dagoen ordaintzekoaren edo ustez huts egindakoaren ondasunen inguruan. Egiaztatze horren ondorioz emaitza positiborik lortzen bada, espedientetik banakatuko dira eta aurrekariak Bilketa Exekutibora itzuliko dira, prozedurarekin jarrai dezan, kudeatzaileen bulegoak emandako elementu edo datu berriak oinarri hartuta. Izapide hori eta aurrekoak aldi

berean edo aurretik egin daitezke, huts egindakoen hasierako proposamena bizkortu eta sinplifikatzeari begira.

7. Aurreko izapideak bukatakoan, udal Kontu-hartzaitzak huts egindakoen proposamena egingo du eta, onetsitakoan, baja emango zaie dagozkien matrikula eta kontuetan. Era berean, huts egindako zergapekoen fitxategia eratuko da, zorra hurrengo lau urteetan gordetzeko, geroagoko zerga jarduketan bitartez zorduna aurkitzekotan erabili ahal izateko, jardun litezkeen ondasunei edo helbideari dagokienez.

8. Haatik, Alkatetzak bajen espediente murriztuak onets ditzake honako kasu hauetan, kasuan kasu adierazitako prozedurari jarraikiz:

a) Errepikakorrak ez diren, hots, behin gertatu diren likidazioei dagozkien ordainagiriak. Bestela, errepikakorrak izanik ere, horiek batuta zenbatekoa 9 eurotik beherakoa bada berdin jokatu da, eta horrez gain, ezin dute izan bide exekutiboko kobratze kudeaketaren baten helburu, emaitza negatiboa izanik. Hori guztia biltzailearen txostenarekin egiaztatuko da; ezeztatu egingo da eta ofizioz data jarri, beste izapiderik gabe.

b) Aurreko proposamenaren barruan ez dauden 12 eurotik beherako kredituak, Bilketa Exekutiboko funtzionarioen bidez edo arauzko beste edozein prozeduraren bitartez jakinarazi ezin izan direnak, zordunen helbidea ezezaguna delako; halere, berdin jokatu da helbidea erregistro estatistikoetan agertzen denean, baldin eta bertan ez direla eta alde egin dutela egiaztatzen bada. Horietan guztietan baja bereziko espediente murriztua egingo da.

c) Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko udal zergaren ordainagiriak, matrikulazioan 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten ibilgailuen kasuan, eta Bilketa Exekutiboaren kobratzeko kudeaketaren helburu izan badira emaitza negatiboarekin, helbidea ezezaguna delako. Kasu horretan, behin-behineko baja emango zaie balioetan, Bilketan eta erroldan edo kobratzeko zerrendan, udal Kontu-hartzaitzak eta Bilketak kontuan hartzean eragin gabe, transferentziak edo bajak Trafiko Burutzaren aurrean egiteko egiaztagiria eskatzen duten zergapekoei preskribatu ez diren azken laurak exijitzeko xedez.

V. ZEHATZEKO AHALMENA

37. artikulua.- Kontzeptua

Zerga mailako arau-hausteak dira zergen inguruko legeetan eta foru arauetan tipifikatu eta zehatutako egiteak eta ez egiteak.

38. artikulua.- Arautzea eta organo eskudunak

1. Zerga mailako arau-hausteak eta zehapenak Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 183 eta 219 bitarteko artikuluetan eta Bizkaiko Lurralde

Historikoko Zergen Arloko Zehapen-araudia onetsi duen ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuan ezarritakoak.

2. Aipatu aginduaren ondoreetarako eskudunak liratekeen udal organoak egokitze aldera, honako erkatze hau ezarri da:

- Foru Aldundia: Udalbatza Osoa.

- Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatua, edo berak eskuordetzen dion organoa, Foru Ogasuneko burua edo kategoria txikiagoko beste organo bat: alkatea.

39. artikulua.- Murriztapenak

1. Zergapekoa bat etortzeagatik zehapenak murrizteari dagokionez, Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Diru zehapenen zenbatekoa % 30 murriztuko da zehapenaren zenbateko osoa sartzan bada, eta hala badagokio, baita zerga zorra ere borondatezko aldian, ordainketa geroratu edo zatikatzeko aukera eman ez bada.

VI. ADMINISTRAZIO BIDEAN BERRIKUSTEA

40. artikulua.- Arautzea

Administrazio bidean berrikusteko garaian, ZFAOn, Toki Ogasunen Foru Arauan eta berau garatzeko araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

41. artikulua.- Errekurtsoa jarri zaion egintzaren betearazpena etetea

1. Berraztertze errekurtsoan edo bide ekonomiko-administratiboan aurkaratutako egintza betearaztea zuzenean etengo da interesdunak hala eskatuta, baldin eta bermatu egiten badira aipatu egintzaren zenbatekoa, etete horrek sortzen dituen berandutza interesak eta eteteko eskaeraren unean bidezkoak diren errekarguak, arauz ezartzen diren baldintzetan.

Hala ere, berraztertze errekurtsoa epe eta forma egokian aurkezteak aurkaratutako egintzaren betearazpena zuzenean etengo du bermerik aurkeztu beharrik gabe, zerga zorra borondatezko aldian badago edota errekurtsoa premiamenduzko probidentziaren aurka jarri bada eta, kasu bietan, borondatezko aldia amaitzen den unean zor den zenbatekoa 10.000 eurokoa edo txikiagoa bada.

Aurkaratzeak zerga zehapen bati eragitekotan, betearazpena zuzenean etengo da, bermerik aurkeztu behar izan gabe, ZFAOren 219. artikuluko 3. atalean xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurkaratzeak kudeaketa partekatuko zerga batekin lotura duen erroldako egintza bati eragiten badio, inola ere ez da etengo gertaera horregatik ordain daitekeen likidazioa kobratzeko prozedura. Hori guztia errolden arloan ematen den ebazpenak ordaindutako likidazioaren emaitzan eragin gabe eta diru-sarreraren dagokion itzultzea egiten bada.

2. Hona hemen zuzenean etetea lortzeko beharrezkoak diren bermeak soil-soilik, aurreko atalean adierazitakoak:

a) Dirua edo balio publikoak gordailuan uztea.

b) Kreditu entitate edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal edo fidantza solidarioa, edota kauzio aseguruaren ziurtagiria.

3. Interesdunak etetea lortzeko beharrezkoak diren bermeak aurkeztu ezin dituzenean, hori erabaki ahal izango da aldez aurretik eskumeneko organoak nahikotzat jotzen dituen beste berme batzuk emanda, eta eteteari buruzko ebazpena aldatu ahal izango da ohartzen bada berau arrazoitzen duten baldintzei ez zaiela eutsi, emandako bermeek balioa edo eraginkortasuna galdu dutenean, edota konturatzen direnean eteteari buruzko ebazpena eman zen unean jakinarazi ez diren bermeak emateko moduko bestelako ondasunak edo eskubideak daudela.

4. Aurreko ataletan eragin gabe, aurkaratutako egintza etetea erabaki ahal izango da:

a) Bermeen dispensa osoz edo partzialez, betearazpen horrek kalte konponezinak edo konpontzen zailak diren kalteak eragin ditzakeenean, erregelamenduan aurreikusitako baldintzetan, eskumeneko organoak eteteari buruzko ebazpena aldatzeko aukeran eragin gabe aurreko atalean aurreikusitako kasu berdinetarako.

b) Bermerik aurkeztu behar izan gabe oker aritmetikoa, materiala edo egitatezkoa egon daitekeela ikusten bada.

c) Zerga zorra edo likidatutako zenbatekoa xede ez duten egintzak direnean eta interesdunak hala eskatzen duenean, eta justifikatzen duenean berau betearazteak kalte konponezinak edo konpontzen zailak diren kalteak sor ditzakeela.

5. Errekurtsoak zerga zor guztiari eragiten ez badio, eteteak aurkaratutako aldeari eragingo dio, eta helegilea behartuta egongo da gainerako zenbatekoa sartzera.

6. Berraztertze errekurtsoan sortutako etetea administrazio eta ekonomia mailako auzien bidean mantendu ahal izango da, arauz ezartzen diren baldintzetan.

7. Administrazio bidean sortutako etetea bere horretan utziko da interesdunak zerga arloko administrazioari jakinarazten dionean (administrazioarekiko auzien errekurtsioa jartzeko epean) errekurtsio hori jartzea bultzatu duela eta berau etetea eskatu duela. Etete horrek jarraitu egingo du, betiere administrazio bidean emandako bermea oraindik ere indarrean eta eraginpean badago, harik eta organo judizialak eskatutako etetearen inguruan dagokion erabakia hartzen duen arte.

Zehapenen kasuan, eteteari eutsiko zaio, aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintzetan eta bermea eman behar izan gabe, harik eta erabaki judiziala hartzen den arte.

8. Egintzaren edo aurkaratutako egintzaren ebazpena berraztertzeke ezohiko errekurtsio baten betearaztea ezin izango da inola ere eten.

9. Erreklamazioaren edo errekurtsioaren ebazpenaren ondorioz aurkaratutako egintzatik eratorritako zenbatekoa osorik edo partzialki sartu behar denean, berandutza interesak likidatuko dira ZFAOren 26. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatu Arauaren 219. artikulua 3. atalean aurreikusitakoan eragin gabe.

42. artikulua.- Berrikusteko prozedura bereziak

1. Udalbatza Osoari dagokio erabateko deuseztasuna aitortzea eta zerga kudeaketaren bidean agindutako egintzen lesio maila aitortzea, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean araututako kasuetan eta bertan ezarritako prozeduraren bidez.

2. Ebazpen egintza agindu duen organoak edozein unetan zuzenduko ditu, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, egitatezko oker materialak edo aritmetikoak, betiere kasuan kasuko ahalmenak preskribatzeko edo iraungitzeko epea igaro ez bada.

43. artikulua.- Berandutza interesa

1. Zergapekoei eta subjektu arau-hausleei berandutza interesa ordaintzeko eskatuko zaie honako kasu hauetan:

a) Ordainketa ezarritako epean ez egitea.

b) Bidegabeko itzulketa bat kobratzea.

c) Zorren ordainketa geroratzea edo zatikatzea.

d) Zergei buruzko araudian eta indarreko aurrekontu xedapenetan adierazitako gainerako kasuak.

2. Berandutza interesa, berau sortzen den aldian indarrean dagoen diruaren legezko interesa gehi % 25 izango da, besterik zehaztu ezean. Zergazkoak ez diren zorrei diruaren legezko interes tasa aplikatuko zaie.

VII. AZKEN XEDAPENA

Zergaren arauketan aurrekontuei buruzko Foru Arauek edo zuzenean aplikatzekoak diren beste edozein arau edo xedapenek sartzen dituzten aldaketek, bidezkoa bada, dagokien aldaketa tazittoa eragingo dute ordenantza fiskal honetan.

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2017ko urriaren 24an eginiko bileran aldatu da, indarrean sartuko da 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. Ordenantza fiskal honen aldaketa partzialik egitekotan, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.